**ERRENTERIA**
**UDALA**
Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

**Espediente zk./**Nº Expediente**:** 2022IGOB0015
**Gaia/**Asunto**:** 2022/09/07 Tokiko Gobernu Batzarraren ohiko bilkura/Junta de Gobierno Local ordinaria de fecha 07/09/2022

**Tokiko Gobernu Batzarra 2022ko irailaren 07an eginiko ohiko bilkurari dagokion akta.**

Errenteriako Udaletxean, 2022ko irailaren 07ko 09:15ak zirela, lehenengo deialdian eta Aizpea Otaegi Mitxelena Alkatearen esanetara (EH Bildu Orereta/Errenteria), ondoko zinegotziak elkartu dira:

***EH Bildu Orereta/Errenteria***

- Itziar Ostolaza Galdos
- Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi
- Bernar LEMOS TABERNA
- José Ramón Gurrutxaga Zubizarreta

***Elkarrekin Errenteria***

- José Manuel Ferradás Freijo

Ez da etorri, baina ezinetorria adierazi du, Maite Gartzia Ontiveros (*Elkarrekin Errenteria*)

Bertan dago, egintza fedatzeko, Nagore Sarasola Otermin Idazkari orokorra.

**1. 2022ko abuztuaren 24ko ohiko bilkurari dagokion akta irakurri, eta egoki bada, onartzea. (2022IGOB0014)**

Oharrik gabe onartu da.

**Acta de la sesión ordinaria de Junta de Gobierno Local celebrada el día 07 de septiembre de 2022.**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 09:15 horas del día 07 de septiembre de 2022, se reúnen en primera convocatoria, bajo la presidencia de La alcaldesa Aizpea Otaegi Mitxelena (EH Bildu Orereta/Errenteria), las siguientes Concejalas y Concejales:

***EH Bildu Orereta/Errenteria***

- Itziar Ostolaza Galdos
- Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi
- Bernar Lemos Taberna
- José Ramón Gurrutxaga Zubizarreta

***Elkarrekin Errenteria***

- José Manuel Ferradás Freijo

No asiste excusando su inasistencia, Maite Gartzia Ontiveros (*Elkarrekin Errenteria*)

Asiste y da fe del Acto Secretaria general Nagore Sarasola Otermin.

**1. Lectura y aprobación en su caso del acta correspondiente a la sesión ordinaria del 24 de agosto de 2022. (2022IGOB0014)**

Se aprueba sin observación alguna.

ESKU6de3a640-4fbc-4c1e-a59b-d224fa19aef2

**2. Eskualdeko lau udalerrien arteko lankidetza hitzarmena: "Enplegurako Plan Integrala: BERPIZTU. (2022ZHIT0010)**

AURREKARIAK

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreren Lan eta Enplegu Sailak eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eta Oarsoaldea, S.A.ren artean "OA3 Laneratzeko Poloa" izeneko proiektu eragilea garatzeko hitzarmena sinatu zela 2021eko irailaren 16an.

Hitzarmen honen baitan Eusko Jaurlaritzak 6.000.000 euroko dirulaguntza eman ziola Oarsoaldea SAri jarduera ezberdinak aurrera eraman zitzan, eta horien artean dago "Enplegurako plan integrala: Berpiztu" lerroa abian jartzea, talde zaurgarrienen aldeko enplegu estrategia sendotu eta osatzeko. Lerro honen barnean eskualdeko lau udalerrien bitartez enplegu programak aurrera eramatea aurreikusi zen.

OARSOALDEA Garapen Agentzia elkarte instrumental bat dela, Oarsoaldeako udalek (Lezo, Oiartzun, Pasaia eta Errenteria) sortua eta bere helburua eskualdeko garapen sozio-ekonomikoa bultzatzea dela.

Izendatutako proiektu horren helburua eskualdeko langabezian eragitea dela, eta honetarako, aipaturiko hitzarmeneko eranskinetan azaltzen diren egitasmo eta programak garatuko direla, besteak beste, Kontratazio Publikoko programa hain zuzen ere, zeinaren bidez interes sozialeko 20 kontratazio publiko sustatuko diren.

Kontratazio Publikoko programa honen baitan, eskualdeko 4 udalek eta Badia Berri enpresa publikoak egingo dituztela kontratazioak, ondoren jasotzeko den zehaztapenarekin.

**2. Convenio cooperación entre los cuatro municipios de la comarca: "Plan Integral de Empleo: BERPIZTU". (2022ZHIT0010)**

ANTECEDENTES

La Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, a través del Departamento de Trabajo y Empleo y Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, y Oarsoaldea S.A suscribieron el 16 de septiembre de 2021 un convenio para la realización del proyecto tractor "OA3 Polo de Inserción Laboral".

En virtud de dicho convenio, el Gobierno Vasco concedió a Oarsoaldea S.A. una subvención de 6.000.000 de euros para llevar a cabo diferentes actuaciones, entre las que se cuenta la puesta en marcha de la línea "Plan Integral de Empleo: Berpiztu", a fin de fortalecer y complementar la estrategia de empleo a favor de los colectivos más desfavorecidos. En el marco de dicha línea, se preveía desarrollar programas de empleo por medio de los cuatro municipios de la comarca.

La Agencia de Desarrollo OARSOALDEA es una sociedad instrumental creada por los ayuntamientos de Oarsoaldea (Lezo, Oiartzun, Pasaia y Errenteria), que tiene por objeto impulsar el desarrollo socioeconómico de la comarca.

El objetivo del mencionado proyecto es incidir en el desempleo de la comarca, para lo que se desarrollarán los proyectos y programas que figuran en los anexos al citado convenio, y, entre ellos, el Programa de Contratación Pública, mediante el que se promoverán 20 contrataciones públicas de interés social.

En el marco de dicho programa de contratación pública, las contrataciones se realizarán por los 4 ayuntamientos de la comarca y por la empresa pública Badia Berri, con el desglose recogido a continuación.

ESKU6de3a640-4fbc-4c1e-a59b-d224fa19aef2

- Errenteriako Udalak:
  - 2 peoi elektrikari
  - 2 margolari ofizial
  - 1 igeltsero ofizial
  - 1 igeltsero peoi
  - 3 atezain
  - 1 administrari
- Pasaiako Udalak:
  - 3 administrari
- Oiartzungo Udalak:
  - 1 administrari
  - 1 arkitekto
  - 1 zuzenbidean graduatu
- Lezoko Udalak:
  - 1 elektrikari ofizial
  - 1 erdi mailako teknikari
- Badia Berrik:
  - 2 produkzio peoi

Planteatzen diren kontratazio guztiak jardunaldi osokoak izango direla, eta gutxieneko kontratuaren iraupena 3 hilabetekoa izan dela.

Proposatzen diren kontratazioen kostu osoa, gizarte segurantza, material didaktiko, fungible, laneko arriskuen babeserako elementuak barne, 457.163 €koa dela, eta Oarsoaldeak Eusko Jaurlaritzatik jasotako dirulaguntzatik guztira 253.249,83 € banatuko dituela lau herrien artean, hitzarmenaren eranskinean azaltzen diren kopuruen baitan, aipatutako kontratazioen kostuak estaltzeko. Zentzu honetan lau udalerriak Eusko Jaurlaritzak emandako dirulaguntza zenbateko horren onuradun asoziatu

- Ayuntamiento de Errenteria:
  - 2 peones/as electricistas
  - 2 oficialas/es de pintura
  - 1 oficial/a de albañilería
  - 1 peón/a de albañilería
  - 3 porteros/as
  - 1 administrativo/a
- Ayuntamiento de Pasaia:
  - 3 administrativos/as
- Ayuntamiento de Oiartzun:
  - 1 administrativo/a
  - 1 arquitecta/o
  - 1 graduada/o en derecho
- Ayuntamiento de Lezo:
  - 1 oficial/a electricista
  - 1 técnica/o media/o
- Badia Berri:
  - 2 peonas/es de producción

Todas las contrataciones que se plantean serán a jornada completa, y la duración mínima de los contratos será de 3 meses.

El coste total de las contrataciones que se proponen, incluyendo seguridad social, material didáctico, material fungible, y elementos de protección de riesgos laborales, asciende a 457.163 €, y que para cubrir los costes de dichas contrataciones, Oarsoaldea distribuirá entre los cuatro municipios un total de 253.249,83 € de la subvención obtenida del Gobierno Vasco, en el marco de las cantidades que figuran en el anexo al convenio. En este sentido, los cuatro municipios tendrán la condición de

ESKU6de3a640-4fbc-4c1e-a59b-d224fa19aef2

izango dira azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, Dirulaguntzen Lege Orokorrak, 11.2 artikuluan xedatutakoaren babesean. Hitzarmena sinatu ondoren, Oarsoaldeak lau udalerriei Eusko Jaurlaritzak emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ordainduko dizkie zenbateko horiek Eusko Jaurlaritzatik jasotzen dituen heinean.

beneficiarios asociados de la subvención concedida por el Gobierno Vasco, al amparo de lo dispuesto en el artículo 11.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones. Una vez firmado el convenio, Oarsoaldea abonará a los cuatro municipios los importes de la subvención otorgada por el Gobierno Vasco, en la medida en que los reciba del Gobierno Vasco.

Oarsoaldeak Kontratazio Publikoko programaren baitan zehazturiko akonpainamendua egingo du; honetarako, kontrataturiko pertsonen jarraipenak egingo ditu. Honetaz gain, kontratazioak amaitu eta ondorengo 6 hilabeteetan kontratatua izan den pertsonari lan txertaketan laguntzeko akonpainamendua ere eskainiko dio.

Oarsoaldea llevará a cabo el acompañamiento definido en el Programa de Contratación Pública, y realizará para ello los seguimientos de las personas contratadas. Además, ofrecerá también un acompañamiento para facilitar su inserción laboral a la persona contratada en los 6 meses siguientes a la finalización de las contrataciones.

Hitzarmen honen iraupena 2022 eta 2023. urte bitartean zabalduko da.

La duración del presente convenio se extenderá entre los años 2022 y 2023.

Adierazitakoaren arabera, Oarsoaldea eskualdeko lau udalerrien arteko lankidetza hitzarmen bat egin behar da “Enplegurako Plan Integrala: Berpiztu”rako diru-laguntzen deialdiaren baitako proiektuak gauzatzen laguntzeko.

De conformidad con lo mencionado, procede formalizar entre los cuatro ayuntamientos de la comarca Oarsoaldea un convenio de cooperación en la ejecución de los proyectos enmarcados en la convocatoria de ayudas para el “Plan Integral de Empleo: Berpiztu”.

## ZUZENBIDE OINARRIAK

* Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea

* 38/2033 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzen Lege Orokorra.

* 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzkoa.

* Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea

Bete da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 55-62 artikuluetan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren

## LEGISLACIÓN APLICABLE

* Ley 40/2015 de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público

* Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

* Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.

* Ley 7/1985 de 2 de abril que regula las Bases del Régimen Local

Visto lo dispuesto en los artículos 55 al 62 de la Ley 7/1985 de 2 de abril, de Bases de Régimen Local, art. 47 y siguientes y 140 de la Ley 40/2015, de 1 de

ESKU6de3a640-4fbc-4c1e-a59b-d224fa19aef2

1eko 40/2015 Legearen 47 eta hurrengo artikuluetan, eta 140 artikuluan. Baita ere Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, ezarritakoa.

Giza Baliabideetako Arduradunak 2022-08-03an txostena eman du.

Udal Kontu-hartzailetzaren oniritzia jaso da.

2022ko irailaren 1ean Giza Baliabideetako zinegotziak egindako erabaki-proposamena, eta arduradunak espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkateak eskuordetutako eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau,

**ERABAKI DU**

1. Onartzea Errenteria, Lezo, Oiartzun eta Pasaiako Udalen arteko lankidetza hitzarmena: “**Enplegurako Plan Integrala: Berpiztu**ri” buruzko deialdiaren inguruan lankidetza hitzarmena, ebazpen honi eransten zaiona.

2.- Errenteriako alkateari, Aizpea Otaegi andreari, ahalmena ematea hitzarmena sinatzeko.

3.- Hitzarmen honen jarraipena egiteko batzorde mistoko udal ordezkari izendatzea Alazne Korta Zulaika Giza Baliabideetako zinegotzia eta Mª Jose Sanchez Plaza Arduradun teknikoa.

4.- Erabaki honen berri ematea Pasaia, Lezo, Oiartzungo udalei eta baita ere, Oarsoaldea, S.A.ri eta Badia Berriri.”

octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público y la contenida en la Ley 2/2016, de 7 de abril, de las Entidades Locales de Euskadi.

Visto el informe de la Responsable de Recursos Humanos emitido el 03-08-2022.

Visto el informe de la Interventora municipal.

Vista la propuesta de acuerdo de la Delegada de Recursos Humanos de fecha 1 de septiembre de 2022 y la conformidad dada por la Responsable de Recursos Humanos a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

Por todo ello, en ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldesa de este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

**ACUERDA**

1.- Aprobar entre los Ayuntamientos de Errenteria, Lezo, Oiartzun y Pasaia el Convenio de cooperación relativo a las siguientes convocatorias: “**Plan Integral de Empleo: Berpiztu**”. El convenio se adjunta a la presente resolución.

2.- Facultar a la Alcaldesa de Errenteria, Sra. Aizpea Otaegi, para la firma del Convenio citado.

3.- Nombrar miembro de la comisión mixta para el seguimiento del presente convenio a la concejala de Recursos Humanos, la Sra. Alazne Korta Zulaika y a la Responsable técnica M.ª Jose Sanchez Plaza.

4.- Comunicar el presente acuerdo a los ayuntamientos de Pasaia, Lezo, Oiartzun, a Oarsoaldea, S.A. y a Badia Berri”

ESKU6de3a640-4fbc-4c1e-a59b-d224fa19aef2

**3. "Errenteriako kaleak asfaltatzeko lanak" gauzatzeko eratorritako kontratua, esparru akordioaren bidez, adjudikatzea. (2020OPOL0040)**

**AURRERAKINAK**

2020ko irailaren 7an kontratua sinatu zen “ASFALTIA, S.L.” enpresarekin, “Errenterian kaleak asfaltatzeko lanak” gauzatzeko, bi (2) urteko iraupenarekin, beste bi (2)urtez luzatzeko aukerarekin eta gehienez 200.000 euroko (%21 BEZa barne) prezio estimatuarekin.

2022ko uztailaren 11ean kontratua luzatu zela ikusirik esparru-akordio baten bidez, «ASFALTIA SL» enpresarekin, 2023ko irailaren 7ra arte eta gehienez 200.000 euroko (%21 BEZa barne) prezio estimatuarekin eta baldintzak izango dira hasierako kontratuan ezarri zirenak.

Baldintza Administratibo Partikularren Agiriaren Ezaugarri Taulak 4. atalean ezartzen duenez, jarduketa bakoitzaren aurretik dagokion obra-proiektua idatziko da, haren irismena zehatz-mehatz definituta.

Horretarako, Elena García udal-teknikariak memoria eta dagokion proiektua idatzi ditu, 195.698,30 euroko (% 21eko BEZa barne) zenbatekoarekin eta hilabeteko (1) egikaritze-epearekin, baita 2022ko abuztuaren 18ko txosten teknikoa ere.

Trafiko eta Garraioko Ordezkariak proposamena egin du.

Udal Kontuhartzaileetzak kontabilitate-kontsignazioaren agiria dago.

“ASFALTIA, S.L.”-k sinatutako onespen idatzia ikusi da.

Ondare eta Kontratazioko Arduradunak txostena

**3. Adjudicación del contrato derivado para la ejecución de las "Obras de asfaltado de calles de Errenteria", mediante acuerdo marco. (2020OPOL0040)**

**ANTECEDENTES**

Visto que con fecha 7 de septiembre de 2020 se suscribió contrato mediante acuerdo marco con “ASFALTIA, S.L.” para la ejecución de las “Obras de asfaltado de calles en Errenteria”, con una duración de dos (2) años prorrogable por otros dos (2) años más, por un importe del presupuesto máximo anual estimado de 200.000 euros (21% IVA incluido).

Visto que con fecha 11 de julio de 2022 se prorrogó el contrato hasta el 7 de septiembre de 2023 por el importe establecido como presupuesto máximo anual estimado de 200.000 euros (21% IVA incluido) y en las mismas condiciones que las establecidas en el contrato inicial.

Visto que el Cuadro de Características del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares establece en su apartado 4, que con carácter previo a cada una de las actuaciones se redactará el correspondiente Proyecto de obras que definirá con exactitud su alcance.

Se han redactado al efecto por la Técnico Municipal Elena García, la Memoria y el Proyecto correspondiente por un importe de 195.698,30 euros (21% IVA incluido) y un plazo de ejecución de un (1) mes, así como el informe técnico de fecha 18 de agosto de 2022.

Vista la propuesta del Delegado de Tráfico y Transportes.

Consta documento de consignación contable emitido por Intervención municipal.

Visto el escrito de conformidad firmado por “ASFALTIA,S.L.”

Visto el informe emitido por el Responsable de

ESKU6de3a640-4fbc-4c1e-a59b-d224fa19aef2

eman du eta Idazkariak oniritzia eman dio.

Contratación y Patrimonio, conformado por la Secretaria General.

Udal Kontuhartzaleak fizkalizazio txostena egin du.

Visto el informe de fiscalización de la Interventora Municipal.

**ZUZENBIDE OINARRIAK**

**FUNDAMENTOS DE DERECHO**

- Sektore Publikoko Kontratuen Legea (9/2017 Legea, azaroaren 8koa)

- Ley de Contratos del Sector Público (Ley 9/2017 de 8 de noviembre)

2022ko abuztuaren 29an Ondare eta Kontratazioko Delegatuak egindako erabaki-proposamena, eta Ondare eta Kontratazioko Arduradunak espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

Vista la propuesta de acuerdo del Delegado de Contratación y Patrimonio de fecha 29 de agosto de 2022 y la conformidad dada por el Responsable de Contratación y Patrimonio a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkateak eskuordetutako eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau,

Por todo ello, en ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldesa de este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

**ERABAKI DU**

**A C U E R D A**

1.- ONARTZEA “Kaleak asfaltatzeko Proiektua. 2022Ko Abuztua”, Elena García, Udaltzaingoko Teknikariak idatzi duela.

1º.- APROBAR el “Proyecto de asfaltado de calles, Agosto 2022” redactado por la Técnica de la Policía Local, Elena García.

2. ADJUDIKATZEA Miguel Mª Cembrero Marcet Jaunari, “ASFALTIA, S.L.”-ren ordezkari gisa (IFK: B47607775), “Errenteriako kaleak asfaltatzeko lanak” gauzatzeko eratorritako kontratua, esparru-akordioaren bidez, hilabeteko (1) exekuzio epearekin eta 195.698,30 euroko (% 21eko BEZa barne) zenbatekoarekin. Hori guztia lizitazioa arautu duten Baldintza Administratibo Partikularre eta Baldintza Teknikoen Agirietan, Udal Teknikariaren txostenaren, baita memoria eta dagokion proiektuan jasotakoaren arabera ere.

2º.- ADJUDICAR a D. Miguel Mª Cembrero Marcet, en representación de “ASFALTIA, S.L.” (CIF: B47607775) el contrato derivado para la ejecución de las “Obras de asfaltado de calles de Errenteria”, mediante acuerdo marco, con un plazo de ejecución de un (1) mes y un importe de 195.698,30 euros (21% IVA incluido), de conformidad con los Pliegos de Claúsulas Administrativas Particulares y Prescripciones Técnicas que han regido la licitación, así como en el informe emitido por la Técnico Municipal, la Memoria y el Proyecto correspondiente .

3º.- BAIMENTZEA eta XEDATZEA 195.698,30 eurotako gastua (% 21eko BEZa barne), AD-3280-2021 zorpekoaren kontura.

3º.- AUTORIZAR y DISPONER el gasto de 195.698,30 (21% IVA incluido) con cargo al contraido n.º: AD-3280-2021.

ESKU6de3a640-4fbc-4c1e-a59b-d224fa19aef2

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidenteak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 09:25 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut. Idazkari orokorrak.

Y sin más asuntos de los que tratar, la Presidenta levanta la Sesión, siendo las 09:25 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente acta. La Secretaria General.

Errenteria, 2022ko irailaren 07a

Errenteria, 07 de septiembre de 2022

Idazkari orokorra / La Secretaria general

Nagore Sarasola Otermin

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU6de3a640-4fbc-4c1e-a59b-d224fa19aef2**
*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710***
*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710***

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| **Titulua / Título:** | 2022IGOB0015-AKTA/ACTA (ERRENTERIAKO UDALA) |
|---|---|

Sinatzailea 1 / Firmante 1: NAGORE SARASOLA OTERMIN - 44164957N
Idazkari Orokorra
Data / Fecha: 2022/09/07 10:44:06